













begirada

73

maiatza  
2019



Lege gordailua BI-1163-05

ikus  
pegi

Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración

Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEAK EAEN 2019


Panoramika honetan, EAEn 2019ko urtarrilaren 1eko datarekin erroladatuta dauden jatorri atzerritarrekoen datuak analizatu ditugu, Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) egindako errolda iraunkorraren behin behineko aurrerapenaren arabera, 2018ko maiatzeko 69. panoramikaren edukia (urte bereko datuei buruzkoa) eguneratuta. Euskadin, prozesu migratzailearen ziklo berria 2015ean hasi zen, eta mantendu egin da. Horren ezaugarri gisa esango dugu atzerritik etorritako pertsonen kopuruak gora egin duela EAEn, bereziki Latinoamerikatik etorritakoenak.

# Biztanleen udal-errola.

## IKUSPEGI OROKORRA

1. grafikoa.

Atzeritar jatorriko biztanleria EAEn lurralde historikoen arabera. Urtez urteko hazkundea. 2018-2019 (kopuru absolutuak)



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

1. taula.

Atzeritar jatorriko biztanleria EAEn lurralde historikoen arabera. Urtez urteko hazkundea. 2018-2019 (kopuru absolutuak eta %)

|          | 2018    | 2019    | Aldea 18-19 | 2018 | 2019 | Aldea 18-19 |
|----------|---------|---------|-------------|------|------|-------------|
|          | (K)     | (K)     | (K)         | (%)  | (%)  | (%)         |
| Araba    | 37.381  | 39.790  | 2.409       | 11,4 | 12,0 | 0,6         |
| Bizkaia  | 100.640 | 108.307 | 7.667       | 8,8  | 9,4  | 0,6         |
| Gipuzkoa | 68.509  | 73.321  | 4.812       | 9,5  | 10,1 | 0,6         |
| EAE      | 206.530 | 221.418 | 14.888      | 9,4  | 10,0 | 0,6         |

Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

2. taula.

Bertako biztanleriaren eta atzeritar jatorriko biztanleria EAEn lurralde historikoen arabera. 2019

|          | EAE       | Bertokoa  | Atzerrian jaioak |           |         |             | Biztanleriaren banaketa lurralde historikoen arabera |          |                  |
|----------|-----------|-----------|------------------|-----------|---------|-------------|------------------------------------------------------|----------|------------------|
|          |           |           | Guztira          | Emakumeak | Gizonak | % emakumeak | EAE                                                  | Bertokoa | Atzerrian jaioak |
| Araba    | 331.353   | 291.563   | 39.790           | 20.223    | 19.567  | 50,8        | 15,0                                                 | 14,7     | 18,0             |
| Bizkaia  | 1.152.200 | 1.043.893 | 108.307          | 57.753    | 50.554  | 53,3        | 52,2                                                 | 52,6     | 48,9             |
| Gipuzkoa | 723.412   | 650.091   | 73.321           | 38.476    | 34.845  | 52,5        | 32,8                                                 | 32,7     | 33,1             |
| EAE      | 2.206.965 | 1.985.547 | 221.418          | 116.452   | 104.966 | 52,6        | 100,0                                                | 100,0    | 100,0            |

Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina


## 2. grafikoa.

Atzeritar jatorriko biztanleriaren ehunekoak, estatuko autonomia-erkidegoen arabera.  
2019-2018 urtearekiko aldea

**E** AEn, jatorri atzeritarreko 14.888 (1. grafikoa) pertsona gehiago izan da 2018an, eta 221.418 daude guztira; alegia, 2019ko urtarrilaren 1eko datarekin EINEk argitara emandako azken datuen arabera, EAEn bizi diren pertsona guztien % 10 (aurreko urtean, % 9,4 izan zen). Arabak segitzen du izaten jatorri atzeritarreko pertsona kopuru handiena duen lurraldea EAEn (% 12); ondoren, Gipuzkoa (% 10,1) eta Bizkaia (% 9,4) daude (1. taula). Jatorri atzeritarreko pertsonen ehunekoak biztanleria guztiarekiko berdin egin du gora hiru lurraldeetan (+ % 0,6).

Jatorriaren arabera lurraldeetan biztanleria nola banatzen den aztertzen badugu (2. taula), ikusiko dugu autonomia-erkidegoko biztanleriaren erdia baino gehiago (% 52,2) Bizkaian bizi dela; hamarretik hiru baino gehiago, Gipuzkoan (% 32,8), eta % 15, Araban. Nolanahi ere, eredu hori bertako biztanleriaren artean antzekoa bada ere, jatorri atzeritarrekoen ereduarekin alderatuz gero, hainbat ñabardura ikus ditzakegu: horrela, jatorri atzeritarrekoen proportzio handiagoa dago Araban (% 18) eta Gipuzkoan (% 33,1 berriz, txikiagoa da (% 48,9).

Jatorri atzeritarreko biztanleriaren ehunekoa autonomia-erkidegoen artean alderatzen badugu (2. grafikoa), EAE erdi-behean kokatzen da (% 10), Espainiako batez besteko % 14,3aren aldean, eta Madriletik edo Mediterraneo itsasoko ertzean dauden erkidegoetatik oso urrun (horietan, ehunekoak altuagoak dira). Hala ere, azken urtean atzeritarren kopuruak izan duen gorakadari soilik erreparatzen badiogu, EAE termino erlatiboetan gehien hazi diren erkidegoetatik hirugarrena da, Aragoiaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen atzetik.




Iturria: EINEn datuak oinarri hartuta egina

Jatorri atzeritarreko biztanleriak azken urteotan Euskadin dinamika demografikoan izan duen eraginari dagokionez, positiboa izan da

Jatorri atzeritarreko biztanleriak azken urteotan (1998-2019) Euskadin dinamika demografikoan izan duen eraginari dagokionez, positiboa izan da. Horrenbestez, 1998 eta 2019 bitartean galdu den bertako biztanleria (-86.747 pertsonako saldo negatiboa) konpentsaturik geratu da epealdi horretan bertan jatorri atzeritarreko biztanleriak egindako ekarpenarekin: +195.084 pertsona. Horrek esan nahi du Euskadin, guztira, 108.337 pertsona gehiago bizi direla.

1998 eta 2019 bitartean iritsi diren jatorri atzeritarreko pertsonei dagokienez, hiru fase nagusitan laburbil daiteke iritsiera hori: lehena 2009ra artekoa, ekonomia-hazkundeari loturik, eta, hartan, jatorri atzeritarreko biztanleria-kopurua etengabe handitu zen; bigarrena 2014ra artekoa, ekonomia-krisiaren testuinguruari loturik, atzeritarren hazkunde negatiboarekin; eta hirugarren fasea, 2015ean hasi zen, jatorri atzeritarreko biztanle-kopuruaren gorakadarekin, eta gaur egun oraindik ere gora ari da (3. grafikoa).

3. grafikoa.



3. taula.

EAEko guztizko biztanleria, bertakoa eta atzeritarra. Hazkundera 1998-2019 eta 2018-2019 (kopuru absolutuak)

| HAZKUNDE ABSOLUTOA             |           |           |
|--------------------------------|-----------|-----------|
|                                | 1998-2019 | 2018-2019 |
| Bertako biztanleria            | -86.747   | -7.011    |
| Atzerrian jaiotako biztanleria | +195.084  | +14.888   |
| EAEko biztanleria              | 108.337   | + 7.877   |


Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egina

Jatorri atzerritarreko biztanleriaren eta atzerritarren arteko erlazioa analizatuko dugu orain, kolektibo horren barruan nazionalizazio-prozesuak hobeto ikusteko; hala, jabetuko gara ekonomia-krisiaren garaian atzerriko nazionalitateko biztanleriaren pisuak bidea utzi ziola atzerrian jaioetako biztanleriari; azken bi urteotan, antzeman daiteke atzerriko biztanleriak jatorri atzerritarreko biztanleria osoarekiko zertxobait gora egin duela, neurri handi

batean haien sorterritik datozen pertsonak gehiago direlako Espainiako nazionalitatea lortu dutenak baino.

#### 4. grafikoa.

*Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen eta atzerrian jaioetako biztanleen bilakaera EAEn. 2008-2019 aldian (%)*



*Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egina*


## Jatorri-eremuak

**M**igrazio-fluxuen aniztasuna EAEn bizi direnen askotariko jatorrietan islatzen da. Horrela, gaur egun, jatorri atzerritarreko hamar pertsonatatik ia erdia (% 49,3) Latinoamerikako herrialde batean jaio da; % 17,6, Europar Batasunean, eta % 14, Magreben. Osaera horrek eta horren proportzio desberdinek euskal gizartearen beraren eta horren lan-egituraren ezaugarriei erantzuten die, neurri batean. Hauexek dira ezaugarri horiek: biztanleriaren zahartze-tasa altuak eta, ondorioz, pertsonen zaintzarekin, etxeko lanekin eta ostalaritzarekin lotura duten enpleguak gero eta gehiago izatea.

Jatorri atzerritarreko hamar pertsonatatik ia erdia (% 49,3) Latinoamerikako herrialde batean jaio da

## 5. grafikoa.

*EAEko atzerritar jatorriko biztanleriaren osaera, eremun geografikoen arabera. 1998-2019 (%)*



*Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egina*

## 4. taula.

Jatorrizko herrialde nagusien urtetik urterako hazkundearen bilakaera. 2018-2019


| HAZKUNDEA 2018-2019 |               |              |              |              |             |
|---------------------|---------------|--------------|--------------|--------------|-------------|
|                     | Guztira       |              | Gizonak      | Emakumeak    |             |
|                     | (N)           | (%)          | (N)          | (N)          | (%)         |
| EB guztira          | 913           | 6,1          | 593          | 320          | 35,0        |
| Magreb              | 2188          | 14,7         | 1.419        | 769          | 35,1        |
| Gainerako Afrika    | 630           | 4,2          | 402          | 228          | 36,2        |
| AEB eta Kanada      | 116           | 0,8          | 47           | 69           | 59,5        |
| Latinoamerika       | 10.546        | 70,8         | 4.417        | 6.129        | 58,1        |
| Asia                | 476           | 3,2          | 193          | 283          | 59,5        |
| Ozeania             | 19            | 0,1          | 18           | 1            | 5,3         |
| <b>Guztira</b>      | <b>14.888</b> | <b>100,0</b> | <b>7.089</b> | <b>7.799</b> | <b>52,4</b> |

Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

Azken urtean, jatorri atzerritarra zuten 14.888 pertsonetatik gehienak (% 70,8) Latinoamerikakoak dira, eta neurri txikiagoan, Magrebekoak (%14,7) eta Europakoak (% 6,1), eta gainerakoak, Afrikakoak (% 4) eta Asiakoak (% 3,2). Bilakaeraren ikuspegitik, ekonomia-krisiaren aurreko etapan, Latinoamerika eta Europa hazi ziren gehien jatorri-eremu gisa. 2009tik aurrera, eta ekonomia-krisiarekin bat, atzerritarren populazioaren hazkundera, oro har, moteldu egin zen, baina Magrebeko populazioa mantendu egin zen. 2014tik aurrera, behera egiten hasi zen Latinoamerikako biztanleriaren hazkundera.

## 6. grafikoa.

Jatorrizko eremu nagusien urtetik urterako hazkundearen bilakaera. 1999-2019 (kopuru absolutuak)



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egina

## Jatorrizko herrialde nagusiak

**G**aur egun, EAEn finkaturik dauden hamar jatorri nagusietatik (5. taula), gehienak Latinoamerikakoak (Kolombia, Bolivia, Nikaragua, Ekuador, Venezuela, Paraguai eta Brasil) Europar Batasunekoak (Errumania eta Portugal) eta Magrebekoak dira (Maroko).

EAEn finkaturik dauden hamar jatorri nagusietatik, gehienak Latinoamerikakoak dira

### 5. taula.

*Jatorrizko hamar herrialde nagusiak EAEn (kopuru absolutuak eta %)*

|    | EAE               |                |              | Araba             |               |              | Bizkaia           |                |              | Gipuzkoa          |               |              |
|----|-------------------|----------------|--------------|-------------------|---------------|--------------|-------------------|----------------|--------------|-------------------|---------------|--------------|
|    |                   | (K)            | (%)          |                   | (K)           | (%)          |                   | (K)            | (%)          |                   | (K)           | (%)          |
| 1  | Maroko            | 24.822         | 11,2         | Maroko            | 6.245         | 15,7         | Kolombia          | 11.818         | 10,9         | Maroko            | 8.339         | 11,4         |
| 2  | Kolombia          | 22.088         | 10,0         | Kolombia          | 5.371         | 13,5         | Maroko            | 10.238         | 9,5          | Errumania         | 5.989         | 8,2          |
| 3  | Errumania         | 15.899         | 7,2          | Argelia           | 2.174         | 5,5          | Errumania         | 9.467          | 8,7          | Rumanía           | 4.951         | 6,8          |
| 4  | Bolivia           | 11.688         | 5,3          | Ekuador           | 1.490         | 3,7          | Bolivia           | 9.407          | 8,7          | Kolombia          | 4.899         | 6,7          |
| 5  | Nikaragua         | 11.118         | 5,0          | Errumania         | 1.481         | 3,7          | Paraguai          | 5.243          | 4,8          | Honduras          | 4.271         | 5,8          |
| 6  | Errumania         | 8.654          | 3,9          | Pakistan          | 1.471         | 3,7          | Nikaragua         | 4.805          | 4,4          | Ekuador           | 3.448         | 4,7          |
| 7  | Venezuela         | 7.720          | 3,5          | Brasil            | 1.434         | 3,6          | Venezuela         | 4.749          | 4,4          | Portugal          | 3.334         | 4,5          |
| 8  | Paraguai          | 7.044          | 3,2          | Nigeria           | 1.397         | 3,5          | Ekuador           | 3.716          | 3,4          | Frantzia          | 2.730         | 3,7          |
| 9  | Brasil            | 6.833          | 3,1          | Portugal          | 1.361         | 3,4          | Brasil            | 3.499          | 3,2          | Argentina         | 2.524         | 3,4          |
| 10 | Portugal          | 6.737          | 3,0          | Paraguai          | 1.351         | 3,4          | Txina             | 3.411          | 3,1          | Pakistan          | 2.168         | 3,0          |
|    | <b>Guztira 10</b> | <b>122.603</b> | <b>55,4</b>  | <b>Guztira 10</b> | <b>23.775</b> | <b>59,8</b>  | <b>Guztira 10</b> | <b>66.353</b>  | <b>61,3</b>  | <b>Guztira 10</b> | <b>42.653</b> | <b>58,2</b>  |
|    | Gainerakoak       | 98.815         | 44,6         | Gainerakoak       | 16.015        | 40,2         | Gainerakoak       | 41.954         | 38,7         | Gainerakoak       | 30.668        | 41,8         |
|    | <b>Guztira</b>    | <b>221.418</b> | <b>100,0</b> | <b>Guztira</b>    | <b>39.790</b> | <b>100,0</b> | <b>Guztira</b>    | <b>108.307</b> | <b>100,0</b> | <b>Guztira</b>    | <b>73.321</b> | <b>100,0</b> |

*Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egina*

EAEn hazkunde handiena izan duten herrialdeei dagokienez, gehienak Latinoamerikakoak dira (Kolombia, Nikaragua, Venezuela, Honduras, Peru, Paraguai, Argentina eta Brasil) eta Afrikakoak (Maroko eta Senegal). Lurralde historikoen arabera, hazkunde handiena izan duten jatorrien artean, aurreko urtean izandakoaren antzekoa da eredua. Horrela, Arabari dagokionez, gora egiten jarraitu du Kolonbiatik, Marokotik, Venezuelatik

eta Perutik etorritakoen kopuruak; Gipuzkoan, berriz, Nikaragutik, Hondurasetik, Marokotik eta Kolonbiatik etorritakoen kopuruak. Bizkaia da aldetetaren bat izan duen herrialde bakarra: izan ere, Kolonbiako populazioa lurraldean hazkunde handiena izan duen bigarren jatorri izatera pasatu da; lehena Nikaragua da, eta hirugarrena, berriz, Maroko eta Venezuela.

## 6. taula.

*Azken urtean gehien hazi diren jatorriak lurralde historikoa eta EAEn. 2019*

|    | EAE               |               |              | Araba             |              |              | Bizkaia           |              |              | Gipuzkoa          |              |              |
|----|-------------------|---------------|--------------|-------------------|--------------|--------------|-------------------|--------------|--------------|-------------------|--------------|--------------|
|    |                   | (K)           | (%)          |                   | (K)          | (%)          |                   | (K)          | (%)          |                   | (K)          | (%)          |
| 1  | Kolombia          | 2.530         | 17,0         | Kolombia          | 616          | 25,6         | Nikaragua         | 1.350        | 17,6         | Nikaragua         | 1.087        | 22,6         |
| 2  | Nikaragua         | 2.529         | 17,0         | Maroko            | 370          | 15,4         | Kolombia          | 1.323        | 17,3         | Honduras          | 725          | 15,1         |
| 3  | Maroko            | 2.105         | 14,1         | Venezuela         | 213          | 8,8          | Maroko            | 1.083        | 14,1         | Maroko            | 652          | 13,5         |
| 4  | Venezuela         | 1.488         | 10,0         | Peru              | 146          | 6,1          | Venezuela         | 993          | 13,0         | Kolombia          | 591          | 12,3         |
| 5  | Honduras          | 1.192         | 8,0          | Dominikar Errep.  | 99           | 4,1          | Honduras          | 436          | 5,7          | Venezuela         | 282          | 5,9          |
| 6  | Peru              | 557           | 3,7          | Nikaragua         | 92           | 3,8          | Paraguai          | 401          | 5,2          | Errumania         | 193          | 4,0          |
| 7  | Paraguai          | 528           | 3,5          | Paraguai          | 83           | 3,4          | Peru              | 306          | 4,0          | Peru              | 105          | 2,2          |
| 8  | Senegal           | 304           | 2,0          | Georgia           | 69           | 2,9          | Bolivia           | 192          | 2,5          | Ukrania           | 98           | 2,0          |
| 9  | Argentina         | 302           | 2,0          | Brasil            | 62           | 2,6          | Senegal           | 178          | 2,3          | Argentina         | 91           | 1,9          |
| 10 | Brasil            | 294           | 2,0          | Argelia           | 56           | 2,3          | Argentina         | 175          | 2,3          | Senegal           | 89           | 1,8          |
|    | <b>Guztira 10</b> | <b>11.829</b> | <b>79,5</b>  | <b>Guztira 10</b> | <b>1.806</b> | <b>75,0</b>  | <b>Guztira 10</b> | <b>6.437</b> | <b>84,0</b>  | <b>Guztira 10</b> | <b>3.913</b> | <b>81,3</b>  |
|    | Gainerakoak       | 3.059         | 20,5         | Gainerakoak       | 603          | 25,0         | Gainerakoak       | 1.230        | 16,0         | Gainerakoak       | 899          | 18,7         |
|    | <b>Guztira</b>    | <b>14.888</b> | <b>100,0</b> | <b>Guztira</b>    | <b>2.409</b> | <b>100,0</b> | <b>Guztira</b>    | <b>7.667</b> | <b>100,0</b> | <b>Guztira</b>    | <b>4.812</b> | <b>100,0</b> |

*Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egina*

## Ondorioak

- Azken urtean, EAEn bizi den jatorri atzerritarreko 14.888 izan dira; horrek, guztira, 221.418 pertsona esan nahi du, EAEko biztanleria osoaren % 10.
- 2019an, azken hiru urteetan antzemandako eta iaz finkatutako eredu bera mantentzen da, Euskadin ekonomia-datuek erakusten duten hobekuntzarekin bat eginda.
- 14.888 pertsonetatik, jatorri atzerritarreko populazioa areagotu dutenak Latinoamerikakoak dira gehienak (% 70,8). Nabarmentzekoak dira, batez ere, Kolonbia, Nikaragua, Venezuela eta Honduras. Halaber, iritsi direnen % 14 Marokokoa da.
- Lurralde historikoen arabera, hiru herrialdeetan gora egiten jarraitu du jatorri atzerritarreko pertsonen kopuruak, eta antzeko jatorrietakoak izaten jarraitu dute: Gipuzkoan, Nikaraguako biztanleen kopuruak jarraitu du hazten gehien, eta ondoren, Honduraskoenak eta Marokoenak; Araban kolonbiarren kopuruak egin dute gehien gora, eta ondoren, marokoarrenak eta venezuelarrenak. Eta azkenik, Bizkaia izan da aldaketa txiki bat izan duen lurralde bakarra: Kolonbiako populazioa hazkunde handiena izan duen bigarren jatorria izatera pasa da, Nikaraguaren atzetik, eta Marokok 2018an zuen postua hartu du.

|                     |                                                    |                                           |
|---------------------|----------------------------------------------------|-------------------------------------------|
| <b>EAE<br/>2019</b> | <b>221.418</b><br>atzerritar<br>jatorriko pertsona | <b>EAEko<br/>biztanleriaren<br/>%10,0</b> |
|---------------------|----------------------------------------------------|-------------------------------------------|

| Fluxuak gorantz |                             |                                                          |
|-----------------|-----------------------------|----------------------------------------------------------|
| <b>2019</b>     | <b>↑ 14.888</b><br>pertsona | Azken bederatzi urteetako<br><b>hazkunderik handiena</b> |

| Gehien hazi diren jatorriak                        |                                          |
|----------------------------------------------------|------------------------------------------|
| <b>Latinoamerikar</b><br>gehiengoa<br><b>%70,8</b> | Kolonbia, Nikaragua,<br>Maroko, Honduras |

| Gehien hazi diren jatorriak<br>lurralde historikoka            |                                                                |                                                         |
|----------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------|
| <b>Bizkaia</b><br>Nikaragua<br>Kolonbia<br>Maroko<br>Venezuela | <b>Gipuzkoa</b><br>Nikaragua<br>Honduras<br>Maroko<br>Kolonbia | <b>Araba</b><br>Kolonbia<br>Maroko<br>Venezuela<br>Peru |